

Urteko txostena. 2016

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Urteko txostena. 2016

BPG errealaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Munduko ekonomia	4,2	3,5	3,4	3,5	3,4	3,1
AEB	1,6	2,2	1,7	2,4	2,6	1,6
Japonia	-0,1	1,5	2,0	0,3	1,2	1,0
Txina	9,5	7,9	7,8	7,3	6,9	6,7
Europar Batasuna	1,7	-0,4	0,3	1,7	2,4	2,0
- Alemania	3,7	0,7	0,6	1,6	1,5	1,8
- Frantzia	2,1	0,2	0,6	0,6	1,3	1,2
- Erresuma Batua	1,5	1,3	1,9	3,1	2,2	1,8
- Italia	0,6	-2,8	-1,7	0,1	0,8	0,9
- Espainia	-1,0	-2,9	-1,7	1,4	3,2	3,2
- Euskadi	0,2	-2,0	-1,8	1,6	2,9	3,1


Iturria: NDF (munduko ekonomia, Txina eta Japonia), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).

- Oro har, munduko ekonomiak nolabaiteko ahultasuna erakutsi zuen berriro. %3,1 hazita, munduko BPGa aurreko urtean baino zertxobait gutxiago eta 2009tik inoiz jaso den tasarik txikiena lortu zuen.
- 2016an bizi zen erritmo apaltzea neurri handiagoan gauzatu zen herrialde garatuetan, batez ere AEBetan.
- Lehenengo aldiz bigarren atzeralditik, Europar Batasuna AEBak baino gehiago hazi ziren, Italia ahul zegoen arren eta Erresuma Batua motel hazi bazen ere, Europar Batasunetik irteteko aukerak irabazi izanaren ondorioz.

Urteko txostena. 2016

EAEko ekonomiaren hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat.

- EAEko ekonomia urrundu zen Europako herrialde askok erakutsi zuten moteltze arineko joera horretatik eta %3,1eko hazkundera jaso zuen, aurreko urtekoa baino bi hamarren gehiago.
- Emaitza horrekin, gaur eguneko zikloaren maximoa 2016ra igaro da, laurogeietan eta 2000etan lortu zen batez besteko emaitza nabarmen gaituz, baina laurogeita hamarretako datura (%3,6) iristen ez dena, hazkunde aparteko hamarkada izan zelako.

Urteko txostena. 2016

BPG errealaren bilakaera. Euskal ekonomia

BPG 2008=100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

- Zortzi urte igaro behar izan dira, Atzeraldi Handiko bostak (2008-2013) eta krisiaren irteeraren eta susperraldiaren hirurak (2014-2016), EAEko ekonomiak 2008an zeukan maila berreskuratzeko.
- Suspertzeko epealdiak, oro har, lehenago iritsi ziren Europako beste herrialde eta eremu batzuetan.

Urteko txostena. 2016

Biztanleko BPGa



- Biztanleko BPGa ia maximoetan dago, nahiz eta 2008ko mailara ez iritsi.
- EAEko eta EB15eko biztanleko BPGek antzeko maila eta joera dituzte eta krisiaren eragina sakona izan zen arren, Europa aurreratuaren hazkundeari eutsi dio.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, EuskadiS21 eredua, Eustaten eta AMECOn (2017ko otsaileko eguneraketa) datuak erabilia.

Urteko txostena. 2016

EAEko taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak


	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Barneko azken kontsumoa	-0,9	-1,4	-1,2	1,9	2,8	3,0
Familien kontsumoko gastua	-1,3	-1,6	-1,1	2,2	3,1	3,1
Herri administrazioen kontsumoa	0,7	-0,9	-1,8	0,7	1,8	2,2
Kapital eraketa gordina	-1,3	-7,0	-4,9	-0,5	2,8	3,3
Ekipamenduko ondasunak	3,7	-4,9	-3,4	3,3	6,5	7,5
Gainontzeko inbertsioa	-2,9	-7,7	-5,5	-2,0	1,2	1,4
Barne eskaria	-1,0	-2,8	-2,1	1,4	2,8	3,0
Esportazioak	1,4	-4,7	0,9	5,8	0,6	2,2
Inportazioak	-0,6	-5,7	0,3	5,3	0,6	2,2
BPG	0,2	-2,0	-1,8	1,6	2,9	3,1
Lehen arloa	7,6	10,9	-3,5	-19,8	13,4	1,6
Industria	1,3	-5,2	-2,7	2,0	3,9	3,3
Eraikuntza	-7,6	-7,6	-4,6	-1,7	0,5	1,6
Zerbitzuak	0,8	-0,4	-1,1	1,7	2,9	3,2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,8	-2,5	-1,4	1,9	4,5	3,6
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,4	0,4	0,6	2,6	2,5	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	0,6	0,5	-1,9	1,0	2,0	3,3
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	0,3	-2,1	-1,8	1,4	3,1	3,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,1	-1,1	-1,6	3,8	1,1	3,1

Iturria: Eustat.

- EAEko ekonomiaren bultzada barne eskariaren ekarpenetik dator, hala kontsumoarena nola inbertsioarena. Kanpo arloak, ordea, posizio neutroa erakutsi zuen.
- Kanpo eskariaren murrizketa ia etengabea izan da 2009tik eta garrantzia handiagoa hartu du barne eskaria suspertu den heinean.
- Hala ere, atzerriarekin eginiko merkataritza, hots, esportazioen eta inportazioen batuketara, BPGaren ia %130 izatera iritsi zen 2016an.

Urteko txostena. 2016

Enpleguaren bilakaera




Iturria: Eustat.

- Lan merkatuak 2016an finkatu zuen 2015eko hobekuntza eta atzean utzi zuen 2009tik 2013ra bitartean pairatu zuen etengabeko galera.
- Lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 16.000 lagun baino gehiagotan hazi zen eta landunen kopurua 900.000etara hurbildu zen.
- Hala ere, oraindik 86.000 lanpostu behar dira krisiaren aurreko zenbakietara itzultzeko.

Urteko txostena. 2016

Langabezia tasaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat.

- Enpleguaren bilakaera onak bide eman zuen langabeen kopurua 2015ean baino are gehiago murrizteko eta langabezia tasak behera egin zuen (2015eko %15,4tik 2016ko %13,4ra).
- Bi generoen langabezia tasek bat egiteko bidea egin dute.
- Hala ere, langabezia tasa oraindik Euroguneko batez bestekoaren hiru puntu gainera dago eta gazteenen kolektiboak %30aren inguruko tasa dauka, aldi baterakotasun handiarekin.

Urteko txostena. 2016


Lan merkatuaren etorkizuna

Biztanleria potentzialki aktiboa



Iturria: Cerepre, Eustat eta Lanbide.

Ordezpen eskaria




- Lanbidek eta Cereprek egin duten prospektiba ariketaren arabera, biztanleria potentzialki aktiboa poliki-poliki murriztuko da, bereziki erdialdeko taldearena, hots, 35 urtetik 49ra doana, laurogeietako jaiotze txikiaren ondorioz.
- Orobat, 2017an 19.000 langile ordezkatu beharko direla kalkulatu dute. Ordezkatzeko beharra 25.000 landunetara biziagotuko da 2030ean.
- Aurrekoaren ondorioz, badirudi langabezia handiko eszenategi batetik lanpostu hutsak betetzeko nahiko jende ez egoteko beste batera pasatuko dela urte gutxian.
- Irtenbidearen zati bat lan merkatuaren partaidetza areagotzea izango da, baina beharrezkoa izango da kanpoko talentua erakartzea.

Urteko txostena. 2016

KPIren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak





Iturria: INE.

- BPGaren gehikuntzak ez du prezioetan tentsiorik sortu oraindik.
- KPIak urte arteko tasa igo zuen urtea amaitu arte eta urteko batez bestekoa %0,0an kokatu zen, 2015eko %-0,3aren ondoren. Petrolioaren garestitzeak azaltzen du bilakaera hori.
- 2016ko prezioen moteltzeak Eurogunearekiko inflazio diferentziala berriro EAEren aldekoa izatea ahalbidetu zuen. Dagoeneko hiru urtez jarraian lortu da aldeko eszenategi hori. Hala ere, 2017ko lehen hilekoetan, kontrako joera bizi zen, petrolio upelaren salneurriak gora egiten jarraitu zuelako.

Urteko txostena. 2016

Lan kostu nominalak orduko




- Orduko lan kostuak 2008-2016 epealdian 18-25 euroko urkilan kokatu ziren nagusiki, salbuespenak Txekiar Errepublika, beherago zegoelako, eta Alemania eta AEBak, gorago zeudelako, izan zirelarik.
- Orduko lan kostuak EAEn bat datoz EB15ekoekin, baina Alemanian dauzkatenen azpitik daude.
- Tasatan, moteltze hori are argiagoa da, hala krisi garaian nola susperraldian.

Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOn datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta

Urteko txostena. 2016

Lan produktibitatea orduko




- EAEk, orduko 41 euroekin, galdutako produktibitatearen zati bat berreskuratu du eta EB15ekoa eta Austriakoa berdindu ditu.
- Hala ere, bide luzea dago aurretik Alemaniarena eta AEBena berdintzeko, Europar Batasunaren eta Espainiaren gainetik egon arren.

Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOn datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta

Urteko txostena. 2016

Lan kostu unitario nominala orduko




- Alemanian, Austrian eta EB15ean, krisiaren une sakonenean (2008-2011) zertxobait handitu ondoren, LKU nominalak asko areagotu ziren, produktibitatea oso gutxi hobetu zutelako (%1,0aren inguru) eta lan kostuak %2,0 baino gehiago gehitu zirelako.
- EAEk eta Espainiak kontrako joera erakutsi zuten, lan kostuak gutxituz. Horri esker, LKU nominalak doitu ziren. Joera hori 2015ean bakarrik aldatu zen, produktibitatea gutxiago hazi zelako.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.

Urteko txostena. 2016

Lan kostu unitario nominala orduko




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.

- Manufakturen LKU nominalak, ekonomia osoarenak ez bezala, kontrolpean daude balio erantsi altuko produktuak ekoizten eta saltzen dituzten herrialdeetan, non prezioa bigarren mailako ezaugarria baita.
- Hori dela eta, Alemanian, Austrian eta EB15ean, kostu altuak eduki arren, LKU nominalak ez dira igotzen, produktibitatea %2,0aren inguru hazten delako.
- EAEn eta Espainian LKU nominalak oso nabarmen jaitsi dira, krisi garaian produktibitatea asko handitu zelako eta lan kostuak bere horretan geratu direlako.

Urteko txostena. 2016

Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala





Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

- Itundutako zergen bidezko diru bilketak aurreko hiru urteetako bilakaera positiboari jarraipena eman zion eta 2016an %2,7 hazi zen, 12.951 milioi euroekin.
- Diru bilketa gehiago hazi zen zuzeneko zergetan (%3,5), PFEZri esker (%4,1). Sozietateen diru bilketak, ordea, behera egin zuen hirugarren urtez jarraian.
- Zeharkako zergek %2,3 gehiago bildu zuten. BEZaren gehikuntza %0,5era mugatu zen, energiaren prezio txikiek nabarmen kaltetuta.

Urteko txostena. 2016

PFEZaren eta Sozietateen gaineko zergaren diru sarrerak




- PFEZetik eratorritako diru sarrerek, bai EB15ean bai EAEn, goranzko joera izan dute 2007-2015 epealdian. Hain zuzen ere, 2007an PFEZren sarrerak EAEko BPGaren %6,3 ziren eta 2015ean zenbaki hori %6,8ra igo da.
- BPGaren eta PFEZren arteko harreman estuak, bide beretik joaten baitira, bilakaera hori azaltzen du.
- Espainian, joera egonkorragoa izan zen, salbuespena 2009an bizi zen beherakada izan zela.
- BPGaren terminoetan, sozietateen zergaren bilakaera erdira murriztu da. Izan ere, 2007an BPGaren %3,0 izatetik 2015ean %1,5 izatera igaro da.
- Espainian ere zerga horren pisua %50 gutxitu da. EB15ean, ordea, murrizketa txikiagoa izan da.

Iturria: Eurostat.

Urteko txostena. 2016

BEZaren diru sarrerak



Iturria: Eurostat.

- BEZaren diru sarrerek BPGarekiko duten pisua ez da aldatu 2007-2015 epealdian (%7,2).
- Hala ere, krisi garaian, kontsumoaren jaitsierak %6,0an kokatu zuen bere pisua 2009an.
- Aitzitik, Espainiak eta EB15ek goranzko joera erakutsi zuten. Joera hori biziagoa izan zen Espainian (2007ko %5,9tik 2015eko %6,5era igo zen) EB15ean baino (epealdi berean %6,7tik %6,9ra igaro zen).
- Edozein kasutan, biak daude EAEn duen pisuaren azpitik.

Urteko txostena. 2016

Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-). Eragiketa errealak

BGParen %


	2007	2009	2013	2014	2015	2016
Eusko Jaurlaritza	1,2	-3,8	-0,9	-0,8	-0,7	-0,6
Foru aldundiak	0,9	-0,1	0,5	0,5	0,3	0,6
Udalak	0,3	-0,4	0,3	0,3	0,3	--
Autonomia Administrazioa	2,5	-4,2	-0,2	-0,1	-0,1	--

Iturria: Eustat 2007-2015eko datuentzat (Aurrekontu likidazioak) eta Ogasuna eta Ekonomia Saila 2016ko datuentzat (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

- EAEko administrazioek portaera ezberdinak erakusten dituzte finantzazio ahalmenari dagokionez.
- Izan ere, Eusko Jaurlaritza ahaleginak egiten ari da defizita gutxitzeko eta erakundeen arteko konpromisoak betetzeko...
- ... foru aldundiek eta udalek aurrekontu superabitak dituzten bitartean.
- Oro har, 2016an aurrekontu saldo positiboa lortzea espero da. Lehenengoa izango zen 2008tik.

Urteko txostena. 2016

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu saldoaren banaketa. 1987-2020



- Eusko Jaurlaritzak egingo duen ahalegina garrantzitsua izango da, 2016-2020 bosturtekoan BPGaren puntu bat murriztuko duelako.
- Aurrekontu egonkortasunaren arloan hartu diren erakunde arteko konpromisoak betetzeak saldo nulua 2020an bertan lortzera behartzen du.
- Hala ere, egiturazko saldoa negatiboa izango da oraindik eta neurri gehiago beharko dira saldo hori ezabatzeko.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustat eta EUS21 ereduaren datuetan oinarrituta.

Urteko txostena. 2016

Kredituen bilakaera

	1995	2000	2005	2008	2009	2010	2012	2013	2014	2015	2016
BPGaren %											
Arlo pribatua	60,1	80,4	104,2	122,6	122,5	123,3	112,4	103,7	94,0	91,6	90,2
Arlo publikoa	4,6	2,3	2,3	2,9	4,2	5,3	6,4	7,4	8,9	9,6	9,8
Guztira	64,7	82,7	106,5	125,5	126,7	128,5	118,8	111,1	102,9	101,2	100,0
Hazkunde tasak											
Arlo pribatua	4,3	17,9	18,9	5,6	-5,0	2,7	-8,5	-8,9	-7,6	0,4	1,8
Arlo publikoa	11,5	-2,1	1,0	51,8	35,9	29,2	10,8	13,7	23,6	10,5	5,4
Guztira	4,8	17,3	18,4	6,3	-4,1	3,6	-7,6	-7,7	-5,5	1,2	2,2

Iturria: Espainiako Bankua.

- Arlo pribatuan, zorgabetzeko joera hautematen da, emandako kreditu pilatuen kopurua biziki gutxitu delako.
- Adierazle hori BPGaren %128,5era iritsi zen 2010ean, baina 2016an %100,0ra murriztu zen.
- Azken urteetan, gehikuntza txiki bat nabaritu da, higiezinaren merkatuaren hobekuntzari, interes tasa txikiei eta kreditua lortzeko erraztasun handiari lotuta.
- Arlo publikoak zorpetzea areagotu du berriro, baina kantitateak arlo pribatuarenak baino askoz ere txikiagoak dira oraindik.

Urteko txostena. 2016

Pobreziaren eta gizarte desberdintasunen inkesta

	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 08-16
Pobreziaren eta ongizate gabeziaren arriskuari buruzko PDGI adierazleak. Intzidentzia %								
Ongizate gabezia	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	-1,6
Pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,1
Ongizate minimoa	50,9	49,5	51,5	47,1	42,4	38,6	40,3	-6,9
Erabateko ongizatea	23,9	33,3	29,1	34,2	40,1	41,4	42,7	8,5
Ondare baliabideen balio estimatua. (Milioi euro)								
Ondare baliabidea	65.141	109.564	169.006	251.088	231.339	228.144	223.282	-11,1
Lehenengo etxebizitza	51.615	84.317	142.308	205.520	176.229	170.304	159.968	-22,2
Aurrezkiak	5.079	7.853	8.056	11.826	20.042	24.536	29.449	149,0
Beste ondare batzuk	8.447	17.394	18.642	33.742	35.068	33.304	33.865	0,4
Ondare baliabideak biztanleko	30.704	52.919	81.090	116.688	106.546	105.714	104.214	-10,7

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

- Pobreziaren adierazlea %1,6ra jaitsi zen 2016an, EAEn jaso diren maila txikienetatik hurbil (2008ko %1,4tik). Datu horrek esan nahi du pobrezia mota horrek 34.158 lagunengan duela eragina, 2008an zirenak baino %4,0 bakarrik gehiago.
- Jabegoan dagoen etxebizitzaren balioak izan duen jaitsierak ondarearen guztizkoa berriro lastatu zuen, 2008-2016 epealdian %11tik gorako murrizketa izan baitzuen.
- Oso bestelakoa da aurrezki pilatuaren bilakaera, krisiari erantzuteko %149,0 areagotu zelako.

Urteko txostena. 2016

Biztanle bakoitzaren batez besteko diru sarrera baliokideak, sarreren dezilen arabera

(Hileko sarrera garbi arruntak)

	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2008-2012	Bilakaera 2012-2014	Bilakaera 2014-2016	Bilakaera 2008-2016
%1-%10 POBREENA(D1)	575	564	498	534	-1,9	-11,7	7,2	-7,1
%10-%20 (D2)	820	818	753	826	-0,2	-7,9	9,7	0,7
%20-%30 (D3)	973	980	930	1.022	0,7	-5,1	9,9	5,1
%30-%40 (D4)	1.137	1.147	1.108	1.181	0,9	-3,4	6,6	3,9
%40-%50 (D5)	1.289	1.307	1.276	1.345	1,4	-2,4	5,4	4,4
%50-%60 (D6)	1.438	1.474	1.441	1.518	2,5	-2,2	5,3	5,6
%60-%70 (D7)	1.607	1.650	1.631	1.704	2,7	-1,2	4,4	6,0
%70-%80 (D8)	1.813	1.883	1.857	1.898	3,9	-1,4	2,2	4,7
80-90% (D9)	2.094	2.191	2.187	2.215	4,6	-0,2	1,3	5,8
%10 ABERATSENA (D10)	2.999	2.943	3.032	3.098	-1,9	3,0	2,2	3,3
GUZTIRA	1.475	1.495	1.471	1.534	1,4	-1,6	4,3	4,0
Gini koefizientea	25,2	25,3	27,1	25,8	0,4	7,1	-4,8	2,0
S80/S20 ratioa	3,6	3,7	4,2	3,9	2,8	13,5	-7,1	8,3
Biztanle pobreenen %10ren diru sarreren %a	3,88	3,75	3,41	3,48	-3,4	-9,1	2,1	-10,3

- Batez besteko soldatak hobera egin du, bi atzeraldietan igo gabe egon ondoren.
- Beheko dezilen soldatak goikoenak baino gehiago hazi dira.
- Oro har, errentaren banaketak hobera egin du.
- Bai Gini indizeak bai S80/S20 ratioak emaitzak hobetu zituzten 2016an, krisiaren aurreko mailara hurbilduz.
- DSBE, EPO eta GLL ez baleude, %10 pobreenaren sarreren jaitziera %23,3ra iritsiko zen.

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

Urteko txostena. 2016

EAEko ekonomiaren aurreikuspen ekonomikoak

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020
BPG	3,1	2,7	2,3	2,2	2,2
Azken kontsumoa	3,0	2,5	2,2	2,1	2,3
Kontsumo pribatua	3,1	2,7	2,3	2,4	2,6
Kontsumo publikoa	2,2	1,7	1,8	1,3	1,2
Kapital eraketa gordina	3,3	3,0	3,2	2,4	2,3
Barne eskaria	3,0	2,6	2,4	2,3	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,2
BPG nominala	3,4	3,9	4,1	4,1	4,1
BPGaren deflatoea	0,3	1,2	1,8	1,8	1,9
Enplegua	1,9	1,9	1,5	1,4	1,3
Langabezia tasa	13,5	11,2	10,7	10,1	9,1

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

- Bizitasun handiko egoera batetik abiatuta (2015-2016), moteltze arina aurreikusten da 2017-2020 epealdirako, 2017ko hazkunde tasa %2,7an egongo delarik.
- Gehikuntza txikiagoa izango da urtetik urtera, 2020an %2,2an kokatu arte.
- Ekoizpenaren bilakaera horrekin batera enpleguaren igoera eta langabeziaren jaitsiera etorriko dira. Langabezia tasa %9,1era iritsiko da 2020an, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldirako ezarri duen helburua betez.

Urteko txostena. 2016

BPG

- EAEko ekonomiak, zortzi urte beranduago, krisiaren aurrean zegoen jarduera maila gainditu zuen, hala termino nominaletan nola errealetan.
- Hala ere, ez du berreskuratu krisiaren aurretik EBarekiko zeukan posizio erlatiboa.
 - EB28arekiko, 2008an, biztanleko BPGa 130,3 zen EAPan neurtuta eta 2016an, berriz, 121,5 zen.
 - EB15arekiko, 2008an, biztanleko BPGa 102,5 zen EAPan neurtuta eta 2016an, berriz, 100,7 zen.
- Industriaren establezimenduen ekoizteko ahalmenaren erabilera %81,1era iritsi zen, 2008tik EAEko industriarentzat inoiz zenbatetsi den daturik gorena baita.
- Eraikuntza %1,6 hazi zen, 2008tik izan duen emaitzarik onena.
- Prezioek atzean utzi dituzte tasa negatiboak eta normaltasuna berreskuratu dute.

Merkataritza

- Finantza krisia piztu zenetik, munduko ekoizpena eta merkataritza tasa berean hazten ari dira (lehenago merkataritza 1,5 aldiz hazten zen). 2016ko lehen hilekoetan, 1aren azpitik ere hazi zen.
- EAEren kuota munduko esportazioetan %0,16 izan zen, 2008ko %0,19tik urrun oraindik.
- EAEren kuota munduko inportazioetan %0,11 izan zen, hau ere 2008ko %0,18tik urrun. Bi kasuetan, erregaien merkatzeak bilakaera baldintzatu du, energiaren atalak inportazio guztien %22 eta esportazio guztien %8 biltzen duelako.
- Kanpoarekiko saldoa EAEren aldekoa izan zen eta 6.112 milioi euroetara iritsi zen, aurreko emaitza guztiak gaindituz.

Urteko txostena. 2016

Enplegua

- Enplegua %1,9 hazi zen 2016an eta Gizarte Segurantzako afiliazioa, berriz, %2,0.
- Hala eta guztiz ere, oraindik 2008an baino 86.000 enplegu gutxiago daude gaur egun.
- Industria lanpostuak sortzen hasi zen. Beraren enpleguaren hazkunde tasa %1,6an kokatu zen, lehen datu positiboa baita, zortzi urtez jarraian lanpostuak etengabe galdu ondoren eta langile guztien laurdena galdu ondoren.
- Eraikuntzaren enpleguak tasa positiboak izan zituen, baina hutsalak. 2007tik ez zen lanposturik sortzen sektore horretan. Horrek iradokitzen du eraikuntzaren doikuntza amaitu dela.

Produktibitatea

- EAEk, ordu bakoitzeko 41 euroekin, produktibitatean galdutakoaren zati bat berreskuratu du eta EB15arekin berdindu.
- 2008-2013 epealdia: produktibitatearen irabaziak enplegu galerari esker lortu ziren.
- 2014-2016 epealdia: produktibitatearen irabaziak BPGaren gehikuntzari esker lortu ziren, lan egindako orduen gorakada nabarmen konpentsatuz.

Urteko txostena. 2016

Arlo publikoa

- Diru bilketak gora egin zuen berriro, nagusiki PFEZren igoerari esker.
- PFEZren diru sarrerak BPGarekiko 2007ko %6,3tik 2015eko %6,8ra igo dira.
- Sozietateen diru sarrerak BPGarekiko 2007ko %3tik 2015eko %1,5era jaitsi dira.
- BEZaren diru sarrerak BPGarekiko %7,2an zeuden bai 2007an bai 2015ean.
- Eusko Jaurlaritzako ahaleginei esker, 2020an saldo nulua lortuko da, baina egiturazko defizita negatiboa izango da oraindik.

Finantza arloa

- Euriborrek historiako daturik gorena (%5,5) izan zuen 2008an. 2016an gunen negatiboan sartu zen lehen aldiz historia osoan.
- Arlo pribatuari emandako kredituak %1,8 handitu ziren 2016an, eta 2015ean hasitako norabide aldaketa (%0,4) finkatuta geratu da.
- 2010ean, emandako kredituen metaketak BPGaren balioa %28,5 batean gaingitu zuen. 2016an, emandako kredituen guztizkoa, ordea, BPGaren baliokidea zen.

Urteko txostena. 2016

Familien egoera finantzarioa

- Pobreziaren adierazlea %1,6ra jaitsi zen 2016an. Zenbaki hori oraindik 2008ko datuaren gainetik (%1,4) dago.
- Izan ere, 34.158 lagun zeuden pobrezia arriskuan 2016an, 2008ko emaitza baino %4 bakarrik gehiago.
- %10 txiroenaren diru sarrerak %7,2 jaitsi ziren 2008-2016 epealdian. Jaitsiera hori %23,3ra iritsiko zen DSBE eta EPO erabiliko ez balira.
- EAEko ondare guztia %11,1 murriztu zen 2008tik 2016ra bitartean (batez ere jabetzan edukitzen den etxebizitzaren eta aurrezkiak ez den beste ondasun batzuen balioaren beherakadaren ondorioz).
- Desberdintasunaren adierazleak. 2008tik 2014ra bitartean nabarmen okerrera egin ondoren, 2016an joera aldatu zen eta emaitza hobea lortu zen, krisiaren aurreko maila berreskuratzea lortu ez bada ere:
 - Gini indizea: 2016an %25,8 eta 2008an %25,2
 - S80/S20 ratioa: 3,9 zen 2016an eta 3,6, berriz, 2008an
 - %10 txiroenaren diru sarreraren ehunekoa: %3,48 zen 2016an eta %3,88, berriz, 2008an

Aurreikuspenak

- 2017-2020 epealdirako, moteltze leuna aurreikusten da.
- Dena dela, hazkunde tasak %2,0aren gainetik egongo dira.